DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko otsailaren 23an egindako ohiko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

*"Otsailaren 27a oso data adierazgarria da sahararrentzat; izan ere, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 45. urteurrena ospatzen dute. Bir Lehluko kanpalekuan izan zen aldarrikapena, diktadura frankistak Mendebaldeko Sahara Marokoren eta Mauritaniaren esku lotsagarri utzi eta egun bat geroago. Bizi duten egoera tamalgarria gogorarazteko balio digu egun horrek, duela lau hamarkada baino gehiagotatik, arrazoirik gabe luzatu den gatazka bat jasaten baitute.*

*Behin baino gehiagotan eta hainbat bidetatik adierazi du Donostiako Udalak saharar herriarekin elkartasuna duela eta haren kausa legitimoa babesten duela. Baina, orain, inoiz baino gehiago, gure laguntza behar du, egoera larrian baitago, 2020ko azaroaren 13an Marokoko armadak su etena bortxatu baitzuen Guergerateko legez kanpoko zerrendan.*

*Tindufeko (Aljeria) kanpalekuetan babestutako sahararrak elikadura eta osasun gabezia larriak pairatzen ari dira, COVID-19ren pandemia dela eta mugak ixtearen ondorioz; izan ere, horrek nazioarteko eta estatuko laguntza sartzea zailtzen du, eta desnutrizio eta anemia arazo larriak eragiten ditu.*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 23 de febrero de 2021, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*"El próximo 27 de febrero es una fecha muy significativa para el pueblo saharaui, en tanto que se conmemora el 45º aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD), que tuvo lugar en el campamento de Bir Lehlu, justo un día después de que la Dictadura Franquista entregara vergonzosamente el Sahara Occidental a Marruecos y Mauritania abandonando el territorio. Es una fecha que nos sirve para recordar la lamentable situación que viven, sufriendo un conflicto que se ha alargado injustificadamente desde hace ya más de cuatro décadas.*

*El Ayuntamiento de San Sebastián ha expresado en numerosas ocasiones y por diversas vías su solidaridad con el pueblo saharaui y su apoyo a su legítima causa. Pero ahora más que nunca, necesita todo nuestro apoyo ante la grave situación que atraviesa, a consecuencia de la violación del alto el fuego por parte del ejército marroquí en la brecha ilegal del Guerguerat el pasado 13 de noviembre de 2020.*

*La población saharaui refugiada en los campamentos de Tinduf, Argelia, está sufriendo graves carencias alimentarias y sanitarias a consecuencia del cierre de fronteras, debido a la pandemia de la Covid-19 que dificulta la entrada de la ayuda internacional y nacional provocando graves problemas de desnutrición y anemia.*

10740n XVII

*Gainera, areagotu egin dira Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuetan bizi diren sahararrek eta aktibistek egunero Marokoko agintariengandik jasaten dituzten giza eskubideen jazarpena eta urraketa, bakean manifestatu eta autodeterminaziorako eta askatasunean bizitzeko eskubidea aldarrikatzeagatik, 45 urteko erresistentziaren eta borroka baketsuaren ondoren.*

*Horregatik, behean sinatzen dugun taldeek honako hau onartu nahi dugu*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalak, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa sortu zeneko 45. urteurrenarekin bat, Saharako herriarekiko elkartasuna adierazten du eta haren legezko kausaren aldeko babesa berresten.*

*2. Donostiako Udalak berretsi egiten du Saharako herriarekin eta haren ordezkariekin dituen lankidetza bideekiko konpromisoa.*

*3. Donostiako Udalak gogorarazten du Mendebaldeko Sahara lurralde ez autonomoa dela, NBEren xedapenen arabera, eta, beraz, deskolonizatu egin behar dutela Saharako herriak autodeterminazio eskubidea erabiltzearen bidez, erreferendum libre eta garden bat eginda.*

*4. Donostiako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkaritzari; Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa onar dezala, eta gatazka bakebidetik konpontzea lortzeko beharrezko ekimenak susta ditzala.*

*5. Donostiako Udalak Marokori eskatzen dio Fronte Polisarioarekin sinatutako su etena bete dezala eta Guerguerat eskualdea akordioan jasotako egoerara itzul dezala.*

*Además, se ha intensificado el acoso y la vulneración de los derechos humanos que sufre, a diario, la población saharaui y los activistas que viven en los Territorios Ocupados del Sáhara Occidental, por parte de las autoridades marroquíes, por el hecho de manifestarse pacíficamente y reclamar su derecho a la autodeterminación y a vivir en libertad después de 45 años de resistencia y lucha pacífica.*

*Por ello los grupos abajo firmantes desean suscribir la siguiente*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, en coincidencia con el 45 aniversario de la creación de la RASD, reafirma su solidaridad con el pueblo saharaui y su apoyo a su legítima causa.*

*2. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián reitera su compromiso con las vías de colaboración que tiene establecidas con el pueblo saharaui y con sus representantes.*

*3. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián recuerda que el Sáhara Occidental es un Territorio No Autónomo, de acuerdo con las disposiciones de la ONU, y que por tanto debe procederse a su descolonización a través del ejercicio del derecho de autodeterminación del pueblo saharaui mediante la celebración de un referéndum libre y transparente.*

*4. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián solicita al Gobierno de España a que otorgue un estatus diplomático a la representación del Frente Polisario en España; que reconozca la República Árabe Saharaui Democrática y que promueva las iniciativas necesarias para lograr una solución pacífica al conflicto.*

*5. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián exige a Marruecos a que cumpla con el alto el fuego firmado con el Frente Polisario, y que proceda a devolver la región del Guerguer-*

*tat a la situación recogida en el mismo.*

*6. Donostiako Udalak Nazio Batuen Erakundeari galdatzen dio Mendebaldeko Saharari buruzko ebazpenak eta xedapenak inplementa ditzala, herri sahararrak bere subiranotasun legitimoa berreskuratu eta bere lurrean duintasunez aske bizitzeko aukera izan dezan.*

*6. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián requiere a la Organización de Naciones Unidas a la implementación de sus resoluciones y disposiciones al respecto del Sáhara Occidental, posibilitando que el pueblo saharaui pueda recuperar su legítima soberanía y vivir en liberta con dignidad en su tierra.*

*7. 2021eko otsailaren 27an, Donostiako Udalak Saharako bandera jarriko du Udaletxeko balkoian, herri horri babesa adierazteko keinu sinboliko gisa.*

*7. El 27 de febrero de 2021, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián colgará la bandera saharaui en el balcón de la Casa Consistorial como gesto simbólico para mostrar su apoyo a este pueblo.*

*8. Donostiako Udalak herritarrak adoretzen ditu otsailaren 27an Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa aldarrikatzeko jarduеretan parte hartzera, une honetako osasun neurriak beterik eta bermaturik". ============================*

*8. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián anima a la ciudadanía a participar el 27 de febrero en las actividades que reivindican la República Árabe Saharaui Democrática, manteniendo y garantizando las medidas sanitarias del momento". =============================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko otsailaren 25an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 25 de febrero de 2021.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**